## BATZUETAN
Batzuetan uste dut
ezin dudala...
Ezin dudala egin ezer
edo ez dudala nahi egin
Hau besterik ez daukagu
zoritxarrez edo ez
errua inori ez bota
gehiago nahi baduzu hasi bila.

Batzuetan uste dut
alperrik saiatzen naizela
gauzak honela egiten
etorkizunik ez daukadala.
Batzuetan uste dut
zoratzen hasi naizela
orduan konturatzen naiz
beste denak ere berdin dabiltzala
Bai!

Ez dauzkat asmoak garbi
Baina ez dut etsiko
zerbait lortu artean
bakean ez dizuet utziko
Ez!

## BOGA BOGA
Boga Boga
itxasora zijoaz
senideak, lagunak eta neska
lehorrean utzita
boga boga
horrela da bizitza

Kresala azalean
haizea aurpegian
noizean behin gorrotoa diozu
baina hire barnean maite duzu
boga boga

Egun bat
eta beste bat, eta beste bat
itxasoa eta zerua ikusten
kresala azalean
haizea aurpegian
beidazuna... itxasoan galduta

Egun bat....

## IKUSI
Ikusi
ikusi eta ikasi
ez pentsa ezeren beharrik daukazula
heltzeko hire mugara
Entzun
argi eta garbi entzun
hire inguruan esaten diren
gauza guztiak entzun
Ikusi
ikusi eta ikasi
ez esan gero inoiz aukerarik
ez duzula izan
Heldu
ondo heldu
ez galdu bidean inoiz berriz
ez dituzun edukiko gauzak
Ikusi eta ikasi
eta ondo entzun
hobeto heldu...
Ikusi eta ikasi

## EZIN LEIKE
Noiz arte jarraitu beharko dugu ikusten
horrenbeste uniforme kalean zehar lasai pasiatzen
eta honela ezin leike hemen ibili
ezin leike bizi ezin leike inondik inora gustora ibili
eta honela ezin leike
ezin leike hemen bizi.

Noiz arte jarraitu beharko dugu ikusten
jendea izorratzeko gogoa besterik ez daukate
eta honela ezin leike hemen ibili
ezin leike hemen bizi
horrenbeste pasma, ertzaina eta pikolo ikusi
eta honela ezin leike
ezin leike hemen bizi.

Eta honela ezin leike hemen ibili
ezin leike hemen bizi
eta honela ezin leike inondik inora
gure gauzak gure gustora adierazi
-Ez!, honela ezin leike
ezin leike hemen ibili
ezin leike hemen bizi

## I HAVE NO MONEY*
Duela mende asko
gizona erraz dejeneratzen hasi
baino lehenago
arazo bakarra zen
goizean jaiki eta kezkatu jatekoa lortzeko
hotz egiten bazuen
txoko baten bila, sua biztu... besterik ez dago
ez zen orain bezala
denborarekin bihurtu gara materialista hutsak

I have no money

Gaur egun bizitzeko
gizarte honek markatzen digun
muga barruetan
paper pusketa batzuk
beharrezkoak izaten dira zoritxarrez sarritan
horrek sortzen dituen arazoak
ez dira erraz konpontzekoak
batzuk oraindik aberasten
beste batzuk kalean kaka jaten

I have no money...and you?

Dirurik ez...

## NI NAIZ NAIZENA
Haur bat bakarrik ez nintzela
uste nuen denok bezala
zerbait lortzeko
erabaki bat bakarrik
hartu behar zela
denborak erakutsi dit
gauzak ez direla horrela
eta hemen nago ni orain pringatzen
zuek denok bezala
eta ni naiz naizena...
ni... naizena naiz

ni naiz naizena
bat gehiago denen artean
nahiz eta pixkat berezia nahi izan

ni... naizena naiz
nire akats eta guzti
ez daukat nortasuna saldu beharrik

ni naiz naizena...
ni... naizena naiz.

## IZEN GABEKO BATA ZURI BAT*
Ez zaitut ezagutzen
ez dakit zaren pertsona edo zer
baina ezer ziur ezetz
hori ez, ezin liteke
bestela ni honela nola nago
ez naiz aurkitzen ez gaizki ez ondo
ni non sartuta nago
ez dakit ez hori eta ez besterik

Ez duzu inoiz utzi izaten
lasaitasuna nire nagusi
beti berdin azkenean ez dakit
nagoen ondo, nagoen gaizki
non nago ni
ez zaitut burutik kentzen
nire neuronak zaude jaten
bestela ere lehen
nahiko bazeuden
orain ezerekin, ez naiz gogoratzen...

Nire neuronak zaude jaten
ez dakit zaren pertsona edo zer
izen gabeko bata zuri hori
niretzat nahi dut.

## BATZUK*
Batzuk badira bizimodua
antolatzen dutenak oraindik bizi gabe
Beste batzuk ordea, bizi dira
bizi diren egunean, ardura bakar batekin:
Ondo pasa eta asko harrapa
dantzan egindakoa, dantzan eginda dagoela

Hautsarengandik gatoz
hauts izango gara
baina bien bitartean
ondo pasa
Bizitza urtez betetzea
ez da urteak bizitzea
alde ederra dago
Batzuk urteak pasa
beste batzuk bizi eta ahal bada goza
Batzuk ez dira konformatzen
beti gehiago nahi, besterik ez daukate.
Beste batzuk ordea, gutxiz konpontzen dira
eta hobeto bizi dira, ajola gabe!!!

## LAINO ILUNAK
Laino ilunak ikusten
goizean goizo zeruan
lehioak bustirik daude
hotzak hiltzen jaiki naiz
berririk ez dakar egun honek
kezka gabe hartuko dut
kafesne bat lasai-lasai
oraindik erdi lotan naiz

Norbaitek ba ote du esan
gaur zerbait gertatu dan
gure bizimodua poztutzeko
edo agian aldatzeko
eguzkiak alde batetik irten
eta bestetik sartzen da
baina bien bitartean inork ez daki zertan dan
bakarrik berriz etorriko dela

Laino ilunak ikusten
goizean goizo zeruan
lehioak bustirik daude
hotzak hiltzen jaiki naiz
egun berri bat daukagu hemen
orain bakarrik behar dugu
itxaropena zaindu eta inoiz ez galdu
egun denak ez dira berdin

## SUA
Ekainak 24
Jon Deunaren eguna
herri guztietan ohitura zaharra
zakar pilo bateri eman sua
hasi pixkat pentsatzen
hobe zer izan leike
jarri pixkat pentsatzen hobe zer izan leike
herriko puta-seme guztiak hartu eta eman sua
Sua
potruetan berua
ni ez naiz aingerua
urte guztiko gorrotuak hartu
eta egun batean bakarrik emateko sua
Sua
eta herriko alkateari ere bai
behar bada eman sua
Sua, Kojon!!!!

## EUTSI HIREAN*
Ez da hain erraza
dirudienez bezala aurkitzea norbera
Batez ere bilatzen hasterakoan
jarri aztertzen egoera
nondik zatozen, nora zijoaz
argi daukazun edo oraindik ez
zerbait nahi duzun izan
edo berdin den batere ez
ez da batere erraza ez
horrenbeste jende artean norbait izatea
ez da ere beharrezkoa
hori bakoitzaren erabakia da
baina lehenbaitlehen jakitea hobe da.

Ez da hain erraza...
Ez da ere ezinezkoa...
norbera aurkitzea...
norbait izatea...
zerbait argi baldin badaukazu eutsi hirean.

## SOBERAN EZ*
Derrigorrez gauza onak, gauza eder eta goxoak
daramate eragozpenak, beharrezkoak direnak
ez dago larrosarik arantzatik gabe
ez dago maitasunik gorrotorik gabe
ez daude bi, hiru gabe
ez da egunik gaba gabe

Eskua luzatzerakoan begira, itxutu gabe distirak
ia nolako garbiak, urre pusketa horiek diran
eta kontuz atzaparrak kakaz bete gabe
argi ibili, kontuz hi
ba al dago larrosarik arantzatik gabe?

Bidai luze bat egiteko asmoa neukan
arantzarik gabeko urrezko larrosa baten bila

Ba ahal dago larrosarik arantzarik gabe?
ba ahal dago maitasunik gorrotorik gabe?
ba ahal daukagu potrorik ezer esan gabe
gauza ederrak zaintzeko?

Soberan ez daude
inoiz gure alde.

## BURUKO MINA*
Ustegabeak bihurtu dira
beldurgarrizko mamu batzuetan
denak batera denak batean
eraso gogorrak izan dira
baina ez dute lortu nahi zuena

Buruko mina, kendu ezina
eguneroko joko zikina
buruko mina, kendu ezina
garunetako odol zikina

Galdera asko eta egoera bat
den dena nire aurka daukat

Buruko mina...

Sendagarririk onena, aizkora zorrotzena
kolpe siku eta zehatz batekin
laister kenduko dizut lepo gainetik

Mila esker... ez da ezergatik

Buruko mina...

## BAZTAN**
Ez nago ziur baina egun sentiarekin
izango zen
Baztango bazterrak nire logelan hasi ziren
sartzen eta sartzen
lekurik ezak nonbait esnatu ninduen
orduan jausi nintzen non nengoen

Leihoa ireki nuen eta emeki emeki
Baztango bazterrak Baztan bai da
Baztan izan nintzen.

Kantu guztiak: J.J. Yurrita, P.A. Basterretxea/P.A. Basterretxea. *Ezik: J.J. Yurrita, P.A. Basterretxea, F.J. Irisarri, I. Muguruza/P.A. Basterretxea. **Ezik: M. Laboa/J.A. Arze

Grabaketa hau, 1991.ko Maiatzaren 24ean, zuzeneko kontzertuan bertan D.A.T.ean egindakoa da, beraz, ez dago ezer konpontzerik eta beste ezer ez dugu nahi izan ikutu, bakarrik kantuak eta jendearen oihuak lekutik aldatu. Honela dela eta, gauza batzuk ondo daude, eta beste batzuk hobeto... (?) ...hau gara gu eta besterik ez daukagu. Agur eta eskerrik asko.

Grabaketa Teknikoa: Kaki Arkarazo
Kanpoko Soinua: Barrabas
Barruko Soinua: Lilo
Argiak: Jabitxu
Roadye: Txals
Afinasión pin, pin, pon, pon: Txomin

Baita ere gurekin ibili dira hor zehar:
Alvaro, Txangala, Roger eta Argi, Philippe, Triston, Katxarros, Paski (Etxera!!), Patxi, Santi, Juantxo...

Aurreko Argazkia: Mikel Goñi-Tryon
Barruko Argazkiak: Imanol Barainka
Atzeko Argazkiak: Auskalo Joandabuskalo
Atzeko Argazkien Argazkia: Iñigo-Belén
Karpeta Muntaia: J.L. Agote
Karpeta Diseinua: P.A. Basterretxea

MILA ESKER: Patxi Goenaga, Mana eta Giller, Eibarko Hilbehera, Lekeitioko Zulo, Euskal Herriko Gaztetxeak, Bilboko Batasunoak, Watx, Jotakie, Eva, Juan Carlos Perez, Oiartzun eta Irungo Baska, Marino Goñi, Zubiarameko jende eta Abesbatza, gure emaztegaiak, gure gurasoak egin behar zutena egin zutelako gu mundu honetara ekarri eta historia hau posible izateko, eta hor zehar egin ditugun lagun guztioi.

DELIRIUM TREMENS DIRA:
Baxua: PATXI
Kitarra: IÑIGO
Bateria: J.J. YURRITA
Kitarra eta ahotsa: ANDONI
Txoferra: TXALS
Beti gurekin: ANGELILLO
Management: MATXITXA